29 EDIZIOA
EDICIÓN

Teatro Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia, 19:30

XXI MENDEKO FLAMENKOA
FLAMENCO DEL SIGLO XXI



HABICHUELA EL VIEJO, Juan Habichuelaren aitona, Marina Habichuela alabarekin
HABICHUELA EL VIEJO, EL abuelo de Juan Habichuela, con su hija Marina Habichuela



© Rufo Reverte

urtarrilak 31 enero

Israel Fernández

Toledoko *cantaore*a / Cantaor de Toledo

Kultura alorreko 2024. urteko gizona – ESQUIRE aldizkaria
Hombre del año –Cultura- Revista ESQUIRE- 2024

Rubén Lara, gitarrista / guitarrista

Andaluziar jatorriko ijito-familia batean jaio zen, Corral de Almagueren (Toledo). Bere inguruak eta kulturak eraginda, aurki piztu zitzaion barnean daraman dohain musikala, baita flamenkoarekiko maitasuna ere.

Oso gaztetatik nabarmendu zen bere gaitasun liluragarriengatik, eta 11 urterekin irabazi zuen aurrenekoz telebista-lehiaketa bat *(Tu gran día,* TVE*).*

Adituen arabera, haren kantaeran bat egiten dute flamenkoaren maisu handien ondare preziatuak eta artistak ukitzen duen orori ematen dion freskotasunak, interpretazioari zein sormenari dagokionez.

Gaur arte 5 disko argitaratu ditu, baina bereziki *Universo Pastora* (Universal Music, 2018), *Amor* (Universal Music, 2020) eta *Pura Sangre* (azken diskoa) lanei esker bihurtu da generoaren eta Espainiako musikaren artista nagusietako bat.

Nace en el seno de una familia gitana de orígenes andaluces asentada en Corral de Almaguer (Toledo). Su entorno y su cultura pronto despiertan en él ese don musical que atesora y ese amor por el flamenco.

Desde muy joven, empieza a destacar por sus asombrosas cualidades, ganando su primer concurso televisivo a los 11 años (*Tu gran día*, TVE).

Su cante, dicen los expertos, es una confluencia de todo ese tesoro que nos legaron los grandes genios del flamenco aderezado con la frescura interpretativa y creativa que el artista aporta a todo lo que toca.

En la actualidad tiene 5 discos en el mercado, siendo *Universo Pastora* (Universal Music, 2018), *Amor* (Universal Music, 2020) y su último lanzamiento *Pura Sangre* los que le han consolidado como una de las grandes figuras del género y de la música en España.



© Rufo Reverte

otsailak 14 febrero

Lela Soto, Sordera

Jerezeko *cantaore*a / Cantaora de Jerez

- Premio Nacional de Cante Joven Antonio Mairena Saria, 2017
  Premio Nacional de Cante Joven Antonio Mairena 2017
- Cristina Heeren Fundazioaren TALENTO FLAMENCO saria, 2017
  Premio Talento Flamenco Fundación Cristina Heeren 2017

Rubén Martínez, gitarrista / guitarrista
Reyes Moreno eta/y Juana Gómez, konpasa / compás

Flamenkoaren egungo eszenako ahots gazteen artean, Lela Soto da proiekzio handien duenetakoa. Madrilen jaio zen 1992an, eta Sordera leinuko oinordeko gazteena da. Gurasoek, Vicente Soto, Sordera, eta Luisa Herediak —flamenko-kantaria eta -dantzaria hurrenez hurren—, txikitatik transmititu diote flamenkoaren esentzia eta harekiko maitasuna. Gainera, aitaren aldetik José Mercé, José Soto *Sorderita* eta Enrique Soto artista handien iloba da, eta amaren aldetik Ray Heredia eta Enrique de Melchor ditu osaba.

Lela Sotok hainbat irrati- eta telebista-saiotan parte hartu du. Nabarmentzekoak dira Canal Sur-eko *Foro Flamenco* programan grabatutako 3 kantuak, *Malagueñas, Bamberas* eta *Tientos Tangos*, gitarra eta perkusioaz lagunduta.

Lela Sotoren *cante* edo flamenko-kantaerak tradizio flamenkoa darama odolean, eta bizitzaz duen dimentsio artistiko eta garaikidea ematen dio generoari; izan ere, garai honetako gaztea ere bada, eta, jakina, axola dio bere inguruan gertatzen denak. Zalantzarik gabe, zorionekoak gara biharko flamenkoaren ahots hau gaur gozatzeko aukera dugunok.

Lela Soto es una de las voces jóvenes con más proyección del panorama flamenco actual. Nació en 1992 en Madrid, y es la heredera más joven del legado de la casa de los Sordera. Su padre, Vicente Soto, Sordera, y su madre, Luisa Heredia, bailaora, le han transmitido desde pequeña la esencia y el amor por el flamenco. Lela es además sobrina de artistas de la talla de José Mercé, José Soto, Sorderita, o Enrique Soto, por parte de su padre, y de Ray Heredia o Enrique de Melchor, por parte de su madre.

Lela Soto ha participado en distintos programas de radio y televisión, destacando los 3 temas que grabó, acompañada de guitarra y percusión, en el *Foro Flamenco* de Canal Sur TV, donde interpretó *Malagueñas, Bamberas* y *Tientos Tangos.*

El *cante* de Lela Soto lleva la tradición flamenca inyectada en la sangre, aportando al género su dimensión artística y contemporánea de la vida, pues también es una joven de su tiempo, a la que por supuesto no le es indiferente lo que sucede a su alrededor. Sin duda, una voz que nos anticipa el flamenco del mañana, pero que afortunadamente disfrutamos hoy.

© Santi Ledo

otsailak 28 febrero

Esperanza Fernández

Sevillako *cantaore*a / Cantaora de Sevilla

Giraldillo del Cante saria, 2008ko Sevillako bienalean
Giraldillo del Cante en la Bienal de Sevilla 2008

Chaparro de Córdoba, gitarrista + 2 palmero
guitarra + 2 palmas

Triana auzoan jaio zen Esperanza Fernández, gurasoengandik benetako herentzia flamenkoa jaso duen kantaria. Latin Grammy sari ospetsuetarako izendatua, Esperanza Fernández da *El amor brujo* konposizioaren interprete nabarmenena; munduko hainbat zuzendari eta orkestra sinfonikorekin taularatu du bertsio hori, baita La Fura dels Baus konpainiarekin ere.

Esperanza Fernándezek prestigio eta aintzatespen handia du nazioartean, eta antzoki onenetan aritu da, hala nola New Yorken, Moskun, Parisen, Tokion, Bruselan, Lisboan, Mexiko Hirian eta Jerusalemen.

Nabarmentzekoa da bere diskografia askotarikoa. *Se prohíbe el cante* lanean hainbat kolaborazio jaso ditu, besteak beste Miguel Poveda, Arcángel, Rocío Márquez, Jesús Méndez, José Valencia eta Tomatitorekin, eta bere azken lana oinarri hartuta (*Sevilla 40.0*), *De Triana al Mundo* bira prestatzen ari da gaur egun.

Esperanza Fernández nació en el barrio de Triana y es una cantaora de genuina herencia flamenca por parte de sus dos progenitores. Nominada a los prestigiosos premios Latin Grammy, Esperanza Fernández es la intérprete por antonomasia de *El Amor Brujo*, versión que ha llegado a realizar con innumerables directores y Orquestas Sinfónicas del mundo, además de con La Fura dels Baus.

De enorme prestigio y reconocimiento internacional, Esperanza Fernández ha actuado en los mejores teatros, desde Nueva York a Moscú, pasando por París, Tokio, Bruselas, Lisboa, México D.F. y Jerusalén, entre otras ciudades.

Cabe destacar su variada discografía, entre la cual se encuentra *Se prohíbe el cante*, con las colaboraciones de Miguel Poveda, Arcángel, Rocío Márquez, Jesús Méndez, José Valencia o Tomatito, entre otros, así como, su último trabajo, *Sevilla 40.0*, para el que prepara actualmente la gira con título: *De Triana al Mundo.*

© Gabriel Salinas

martxoak 14 marzo

Luz del Mar

Guitarra bikotea / Dúo de guitarras

LAURA CALDERÓN – Gitarra flamenca / Guitarra flamenca
EKATERINA ZAYTSEVA – Gitarra klasikoa / Guitarra clásica

Egungo eszenako bi emakume ospetsuren batasun musikal zoragarria: Laura Calderón gitarrista flamenko gaztea, flamenko instrumentalaren artista berrien artean etorkizun handikoa, eta Ekaterina Zaytseva gitarrista klasikoa, sentsibilitate bikainagatik eta maisutasun teknikoagatik ezaguna eta bere belaunaldiko interprete handienetakoa.

Isaac Albéniz, Manuel de Falla eta Sabicasen lanak eta Laura Calderónen jatorrizko konposizioak uztartuta, bikoteak aztergai izan du gitarra klasiko edo espainolaren adierazpen-aberastasuna, dimentsio guztietan. Naturaltasunez eta indarrez, muga estilistikoak gainditzen dituzte Espainia modernista hura iradokitzen duten piezek, flamenkoaren *palo*ak —buleria eta *farruca*— eta sorkuntza propioak baliatuz.

Luz de Mar emanaldian nahasi egiten dira gitarra klasikoaren tinbrearen gozotasuna eta flamenko autentikoaren pasioa eta erritmoa. Emaitza, esperientzia musikal limurtzailea, garaikidea eta zinez femeninoa.

Es la maravillosa unión musical entre dos figuras femeninas del panorama actual: la joven guitarrista flamenca Laura Calderón, una de las nuevas voces más prometedoras del flamenco instrumental.

La guitarrista clásica Ekaterina Zaytseva, reconocida por su exquisita sensibilidad y su maestría técnica, consolidada como una de las grandes intérpretes de su generación.

A través de obras de Isaac Albéniz, Manuel de Falla, Sabicas o composiciones originales de Laura Calderón, el dúo explora la riqueza expresiva de la guitarra española en todas sus dimensiones. Piezas que evocan la España modernista, palos flamencos como la bulería o la farruca, y creaciones propias que cruzan fronteras estilísticas con naturalidad y fuerza.

Luz de Mar combina la sutileza tímbrica de la guitarra clásica con el carácter apasionado y rítmico del flamenco más auténtico, creando una experiencia musical envolvente, contemporánea y profundamente femenina.

© Miguel Molina

Martxoak 28 marzo

Reyes Carrasco

Los Palacioseko (Sevilla) *cantaore*a / Cantaora de Los Palacios (Sevilla)

La Unióneko Festival de Cante de las Minas jaialdiko nazioarteko saria, 2015
Premio Internacional Festival de Cante de las Minas de La Unión 2015

Rubén Lara, gitarrista / guitarrista

Reyes, María José Carrasco flamenko-kantariaren alaba, egungo flamenko artistarik gazteenetakoa da, etorkizun oparoen duenetakoa. Bi urte zituenetik erakutsi zuen flamenkoa kantatzeko grina, eta talentu goiztiar hori nabarmendu dute bere ibilbidean jaso dituen hainbat sari eta aintzatespenek.

Lorpen garrantzitsuen artean, aipatzekoa da La Unióneko Festival de Cante de las Minas jaialdiko nazioarteko 1. saria (2015); horri esker, jaialdiaren 55 urteko historiako irabazlerik gazteena bihurtu zen Carrasco. Beste sari batzuk ere irabazi ditu, hala nola Premio Especial Infantil delakoaren 1. saria (2015) eta Canal Sur-eko *Tierra de Talento* programako 1. saria (2021).

Los Palacios y Villafranca udalerriko alaba kutun izendatu zuten 2021ean, bere ibilbide meteorikoa eta flamenkoari egindako ekarpena nabarmentzeko. Gaur egun proiektu berri batean murgilduta dago José Miguel Évora zuzendari eta konpositorearekin batera. Ospe handiko artistekin partekatu du agertokia, hala nola Estrella Morente, José Mercé, Esperanza Fernández eta Rosario Floresekin.

Madrilgo Erkidegoko V. Suma Flamenca Joven (2025) ekimenean parte hartu du, eta arrakasta handia izan du kritikaren eta publikoaren artean.

Reyes Carrasco, hija de la cantaora María José Carrasco, es una de las artistas más jóvenes y prometedoras del flamenco actual. Desde los dos años mostró su inclinación por el cante, y a lo largo de su carrera ha acumulado numerosos premios y reconocimientos que destacan su precoz talento.

Entre sus logros más importantes están el 1º Premio Internacional del Festival de Cante de las Minas de La Unión (2015), convirtiéndose en la ganadora más joven en 55 años de historia del certamen. También ha ganado premios como el 1º Premio Especial Infantil (2015), el 1º Premio *Tierra de Talento* de Canal Sur (2021).

En 2021 fue nombrada Hija Predilecta de Los Palacios y Villafranca, reconocimiento que resalta su meteórica trayectoria y su contribución al flamenco. Actualmente está trabajando en un nuevo proyecto con el director y compositor José Miguel Évora. Ha compartido escenario con figuras destacadas como Estrella Morente, José Mercé, Esperanza Fernández y Rosario Flores y participado con éxito de crítica y público en la V Suma Flamenca Joven (2025) de la Comunidad de Madrid.

Sarrera-salmenta

"XXI. MENDEKO FLAMENKOA" ZIKLOA ABONAMENDU ETA SARREREN SALMENTA

ABONAMENDU salmenta (52 €): abenduak 10
Leihatilan eta telefono bidezko ordutegia: 16:00-18:00
Online salmenta abenduaren 10eko 16:00etan hasiko da.

SARREREN salmenta (15€): abenduak 17
Leihatilan eta telefono bidezko ordutegia: 16:00-18:00
Online salmenta abenduaren 17ko 16:00etan hasiko da.

ONLINE: PRINCIPALANTZOKIA.JANTO.ES
TELEFONOA: 945 16 10 45

Venta de entradas

CICLO FLAMENCO SIGLO XXI VENTA DE ABONOS Y ENTRADAS

Venta de ABONOS (52 €): 10 de diciembre
Horario de taquilla y teléfono: 16:00-18:00
La venta online comienza a las 16:00 del 10 de dciembre

Venta de ENTRADAS (15€): 17 de diciembre
Horario de taquilla y teléfono: 16:00-18:00
La venta online comienza a las 16:00 del 17 de diciembre

ONLINE: PRINCIPALANTZOKIA.JANTO.ES
TELÉFONO: 945 16 10 45

Gogoan izan

Erabilera baldintzak:

- Sarrerak ondo begiratu erosteko unean, gerora ezingo baita sarrerarik trukatu edo itzuli.
- Antzokira sartzerakoan **egiaztatu behar da deskontua** izateko eskubidea.
- Ikuskizuna hasi baino 20 minutu lehenago zabalduko dira ateak.
- Antolatzaileek ikusleen kokapena alda dezakete, ikuskizunak hala behar izanez gero/ikuskizunaren beharretara egokitzeko.
- Garaiz hasiko dira ikuskizunak. Ikusleei eta antzezleei enbarazu ez egitearren, saioa hasi ondoren **ezingo da aretora sartu** atsedenaldira arte, halakorik bada.
- **Galarazita dago grabazioak eta argazkiak** egitea, zuzendaritzaren baimenik gabe.
- Ezingo da **ez jan ezta edan** ere areto barruan.
- Pisuzko arrazoirik izanez gero, iragarritako ikuskizunak ordezterik izango dute antolatzaileek. Halakoetan, dirua itzuli edo sarrera trukatuko da.
- **Telefonoak eta soinua** ateratzen duten bestelako tresnak itzali egin behar dira.
- Areto guztietan dago **mugikortasuna murriztua edo ikusmen zein entzumen urria duten pertsonentzako** lekurik (ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagora arte erreserbatu daitezke). Baldin eta halakorik egiaztatzen duten pertsonek ez badute eserleku horiek betetzen, emanaldia baino ordubete lehenago jarriko dira salgai, edonork erosteko moduan.
- Areto guztiek larrialdietarako plana dute.
- Etxe animaliak ezin dira sartu.
- Ezin da sartu aretora **hiru urtetik beherako** adingaberik 0-3 urte arteko haurrentzat ez diren emanaldietan.

Recuerda

Condiciones de acceso y de uso del teatro:

- Comprobar las entradas en el momento de adquirirlas. No se admitirán cambios ni devoluciones en otro momento.
- **Los descuentos deberán ser acreditados** al presentar la entrada.
- El acceso del público comienza 20 minutos antes de la hora de inicio de los espectáculos.
- La organización se reserva el derecho a cambiar la ubicación del público, por necesidades del espectáculo.
- Los espectáculos comenzarán puntualmente a la hora anunciada, **no permitiéndose después el acceso** al recinto, hasta el intermedio si lo hubiere.
- **No está permitido realizar fotografías, filmaciones**, ni grabaciones sin autorización expresa de la dirección.
- No está permitido el consumo de **alimentos y bebidas** en la sala.
- La organización se reserva el derecho a variar o suspender los espectáculos anunciados, cuando causas de fuerza mayor lo exijan. Esto llevará consigo la devolución del importe o cambio de la entrada.
- Se ruega a las personas espectadoras que apaguen completamente sus **teléfonos móviles u otros aparatos** que emitan señales acústicas durante la función.
- Todas las salas disponen de localidades para **personas con movilidad reducida, con baja visión o baja audición** (reserva de entradas hasta una hora antes del comienzo del espectáculo). En caso de que las personas que acrediten esta circunstancia no ocupen estas localidades, saldrán a la venta al público en general una hora antes de la función.
- Todos los recintos disponen de un plan de emergencia.
- No se permite el acceso de animales de compañía.
- No se permite la entrada en la sala a **menores de tres años** en las representaciones no destinadas a su edad.

TEATRO
JESÚS IBAÑEZ DE MATAUCO
ANTZOKIA

CENTRO CÍVICO **HEGOALDE** GIZARTE ETXEA

Alberto Schommer, 10